

24. IRADOKIZUNA: PRIVATU BATEK MEZU ELEKTRONIKOZ

DATA: 2018/04/30

2006ko LPPa oso modu irregularrean garatu da. Planifikatutako gauza asko egin gabe daude. LPPek egiten zuen irakurketa sozio-ekonomikoa oso okerra zeta demostratu da. Aurre-ikuspen guztiak egin ziren kontuan hartuta handitze demografikoa eta etengabeko gorakada ekonomikoa.

Horren arabera erabaki zen nekazal- /urrak lur-zoru industria/a bezala birkalifikatzea – "mantxak" izugarri exajeratuak izan ziren-. Gauza bera baimendu zen etxebizitza kopuruarekin.

Berrikuspenaren Aurrerapen honetan Lezamako HAPO agertzen da "Aprobado definitivamente" eta horren arabera 2 "mantxa" birkalifikatutzat ematen dira: Ugarten eta Kurtzen. Bien artean 60 bat hektarea, balio handiko nekazal lurak zirenak, eta bakoitzean derrigorrez babestu beharreko harizti banarekin.

Kontua da Lezamako HAPO 2018ko otsailean Eskubide Osoz ANULATUTA geratu zeta. Lezamako Udalak errekurtsua jarri du Espainiako Auzitegi Gorenean, eta errekurtsua onartzen duten ala ez jakiteko urte bete bat pasa daitekeela. Gorenak errekurtsua onartuz gero, eta sententzia eman arte, beste 2 edo 3 urte pasa daitezke. Lezamako Udalak errekurtsua galtzeko aukera handiak dauzka, aurreko Arau Subsidiarioekin gertatu zen bezala.

Aurrekoa kontuan hartuta eskatzen dugu Lezamari buruzko informazioa zuzentzea eta argitzea HAPO hori Eskubide Osoz ANULATUTA dagoela eta errekurtsu baten zain. Horrek esan nahi du 2006ko LPPan idatzita eta kartografiatuta zegoen ezer ez de/a egin eta hala agertu behar de/a: ez da ezer exekutatu.

Horretaz gain eskatzen dugu Ugarteko eta Kurtzeko "mantxa industrialak" ezabatzea eta aurreko kalifikazioa berreskuratzea –"balio estrategiko handiko nekazal lurak"- eta, legeak esaten duen moduan, kalifikazio hori binkulantea izatea etorkizuneko garapenen plangintzan.

Eskatutakoa bat datar Berrikuspen honetan azaltzen den hainbat helbururekin:

Helburu Olen baitan: " Protección y puesta en valor de los suelos de valor agrícola, reducidos en un 32% entre 2000 y 2009"

Helburu O2aren baitan: "Evitar la afección al medio natural y rural y el consumo de nuevo suelo".

Bi helburu horiekin /otuta eta nekazal lurrik ez birka/ifikatzeko derrigorrezko ikusten dugu O3 helburuan aipatzen dena " Rehabilitar y reutilizar los pabellones industriales vacíos", ehunka Txorierri eta Bilbao Metropo/itanoan, edo baita "Regenerar los suelos contaminados y obsoletos" ere.

ETXEBIZITZA ESKAINTZA

Kontuan hartuta orain arte esandakoa eta piramide demografikoa erronbo bat bilakatzen ari de/a, orain arte eraikitzea baimendu den etxebizitza kopurua erabat exajeratu izan de/a garbi geratu da.

Ez da ahaztu behar Bilboko Udalak 14.000 mi/a etxebizitza eraiki nahi dituela, eta adibidez, Lezamako Udalak anulatutako AASS eta HAPOn 500 etxebizitza inguru eraikitzea nahi zuela/duela -gehi lonjak, gehi 200 bat zatitutako baserrietan-, dena guztiz desproporzionatuta aurreikuspen demografikoekin eta etxebizitza eskaera errealekin:

- 2017 Bizkaian saldutako/erositako etxebizitzaren %80 erabilitako etxebizitzak izan ziren, beraz, egin berriak %20 baino ez.
- Lezaman, Udalaren arabera, ia 200 etxebizitza hutsik daude.
- Zamudion Berrikuspenaren Aurrerapenean, **Zomudioko** Udalaren txostenean baieztatzen da: "... **no se han construido edificios residenciales en los últimos 16 años, aunque dispone de suelo urbanizado** para ello, como consecuencia de actuaciones que se paralizaron con la crisis económica e inmobiliaria. Cuenta con **porque residencial vacante y follo el atractivo residencial**... Beraz, Zamudion eta Txorierri guztian hutsik dagoen etxebizitzaren kopurua kontuan hartzeko moduko datua da.

Aurreko guztia kontuan hartuta eskatzen dugu LPP berrian eskainiko den etxebizitza kopurua 2006ko LPPn onartu zena baino askoz ere txikiago izatea, eta kontuan hartzea 2018ko benetako eszenatokia eta ez balizko eszenatokiak, errea/iteatik erabat kanpo daudenak eta espekulatzeko ilusio sortzaile baino ez direnak.

Gainera etxebizitza sozialak bultzatzea agian hobetuko luke Zamudioko Udalak esaten duen moduan "... el atractivo residencial." Prezio egokiagoek agian egingo lukete Txorierri etxebizitza erosteko leku erakargarriagoa.

HELBURU O1.

Bertako basoak berreskuratzea eskatzen dugu, eta horretarako hainbat neurri proposatu:

- Diputazioak duen basogintza eredia guztiz aldatzea
- pinuak eta euka/iptoak bertako espezieekin ordezkatzeko

- espezie horien monokultiboa debekatzea
- horiei diru-laguntzak kentzea
- eta diru-laguntzak erabiltzea bertako espezien landaketa sustatzeko.

/Ido beretik Lezamako mendi publikoan, Gangurenganako Santa Maria, Lezamako Uda/ak Diputazioaren plangintza bat onartu zuen 2019a arte eta 2020tik 2024ra arte. Plangintza horretan argi azaltzen da produktiboak izan daitezkeen lur-sail guztietan pinua eta eukaliptoak landatuko direla, eta bertako haritzaren kontra egiteko era guztietako herbizidak erabiliko direla, mendiaren joera natura/a hariztiak sortzea baita. Gainera ongarri kimikoen erabilera ere bultzatzen da.

Uste dugu hori barbaridade bat de/a eta gure ingunearen degradazioa begi bistakoa de/a. Hurbileko mendietan ibiltzeak pena ematen du eta, azkenean, naturaz disfrutatu nahi badugu kotxea erabili behar dugu Parke Naturalak edo babestutako ingurunetara joateko.

Hori de/a eta eskatzen dugu antzeko plangintza guztiak berrikustea eta a/datzea aurretik esan den moduan.

HELBURU 02

Movilidad cic/able.

Besteak beste Larrabetzu-Derio-Lutxana ardatza edo Txorierriko ardatza aipatzen da. Ados gaude eta hori gauzatzea baino ez dugu eskatzen.

Horrekin botera eskatzen dugu Zamudion egin duten bezalako "bidegorri" arriskutsurik ez egitea: norabidea hainbat bider aldatu behar da zebrabideen bitartez, bidea bat-batean amaitu egiten da, oinezkoak bertatik ibiltzen dira...

Uste dugu egiten diren garapen urbanistiko berri guztietan kontuan hartu behar direla halako infrastrukturak, derrigorrez, kotxeen zirkulaziorako aurreikusten eta /ehensten diren bezo/a. Inork ez du imaginatzen errepiderik gabeko garapen urbanistikorik.

HELBURU 03

Txorierrirako eskatzen dugu Txartel Bakarra eta Linea 3 martxan jartzea.